


Gaur gabon



Euskal Herrian, Gorbeia izeneko mendi baten puntan gure Olentzero bizi da. Egurrezko eta harrizko etxe polit handi batean bizi da, bere emaztearekin.

Bere emaztea Pantxika deitzen da. Bi astotxu dituzte Beltz eta Txiki deitzen dira. Txakurra Lagun deitzen da. Gure Olentzero, Patxi deitzen da. Guztiak oso pozik bizi dira. Urte osoan gure Olentzerok eta bere emazteak, lan handia egiten dute. Lehenengo Euskal Herriko ume guztien gutunak bildu egin behar dituzte bere astotxuen laguntzarekin. Hori egin eta gero Pantxikaren laguntzaz gutun guztiak irakurri behar ditu. Gero jostailuak egin behar ditu Euskal Herriko etxe guztietarako.

Gure istorioa 2012ko abenduaren 19an hasten da.

Olentzerok eta Pantxikak egun horretan opari guztiak prest utzi zituzten bere etxean, gero ume guztiei banatzeko. Oso nekatuta zeuden eta ohera joan ziren.

Pantzika eta Olentzerok lo egiten zuten bitartean, iratxo maltzurak bere etxean sartu eta opari guzti guztiak lapurtu zituen. Hurrengo goizean Olentzero eta Pantxika esnatu zirenean opariak ikustera joan ziren eta opariak desagertu ziren.

Olentzero oso triste jarri zen zeren eta orain ezin zizkieten umeei opariak banatu. Ume guztiak oso triste jarriko ziren oparirik gabe. Biak goiz goizetik etxetik irten ziren, Gorbeia mendi guztia oinez ibiltzen hasi ziren oparien bila.